

## **EH Bilduk berehalako irtenbidea eskatzen dio EAJ-PSE gobernu taldeari kultura berpizteko**

*Nagore Gomara: “Azkeneko hilabeteetan, herriko kultura etenaldi batean murgilduta dago, eta onartezina da hurrengo hilabeteetan ere, egoera berean jarraitzea. Egoera honi aurre egiteko konponbideak eta alternatibak eskatzen dizkiogu udal gobernuari”.*

Laudio, 2021.02.03. COVID 19 gure bizitzan agertu denetik, EH Bilduk gauza guztien gainera herritarren osasuna jarri badu ere, oraingoan, eta lehentasun hori alde batean utzi gabe, herriko kulturaz gozatzea ezinbestekoa dela aldarrikatu du. Hori dela eta, kultura suspertzeari eusteko ahalegina eskatu dio udal gobernuari. *“Udalak kulturaren aldeko apustua egin beharko lukeela uste dugu. Arduratuta gaude kultura eragileen egoeratik, iazko martxotik hona, ekonomikoki, sektore hau kaltetuenetarikoa izan baita, eta, aldi berean, herritarrok kulturaren beharra dutela sumatzen dugu. Segurtasun neurriak bermatuz gero, kultura ekimenak eta emanaldiak egitea posible litzateke, beste hainbat herritan horrela izaten ari da eta”,* adierazi du Nagore Gomarak.

Aldi berean, koalizioak EAJ-PSE gobernuari eskatu dio herriko kultur eragile eta taldeen premiak behar bezala ase ditzan. *“Eragile eta talde kultural asko dira azkeneko egunotan haien lana aurrera eraman ahal izateko, espazio eta leku baten beharra aldarrikatzen dutenak”,* gehitu du zinegotziak. Alderdiak adierazi du ere kultura etxeko berrikuntza lanek irauten duten bitartean, gobernu taldeak ez diela behar bezalako konponbiderik eskaini herriko taldeei, obren planifikazio eza ere salatuz. Oraindik bi urte falta direnean Kultura etxeko obrak bukatzeko, eta ikastaro eta ekintza guztiak bertan behera geratu direnean, EH Bilduk premia eskatu dio udal gobernuari herriko eragile eta taldeen jarduerari oztoporik ez jartzea, eta alternatibak eskaintzea kultur etxeko lanek eraginda, lokalik gabe geratuko diren taldeei.

Bukatzeko, koalizioak kezka adierazi du ikastaroen etete honen ondorioz, langabezian edo egoera prekarioan geratu diren langileen egoeraz, eta dei egin dio EAJ-PSE gobernu taldeari, segurtasun neurri egokiak bermatuz nahiz bide telematikoa erabiliz, adibidez, berriro ere, herritarrei ikastaroen eskaintza luzatzea.

## **EH Bildu exige al equipo de gobierno EAJ-PSE una solución inmediata para reactivar la cultura**

*Nagore Gomara: "En los últimos meses, la cultura del pueblo está en modo pausa, y es inaceptable que en los próximos meses siga en la misma situación. Pedimos al equipo de gobierno soluciones y alternativas para hacer frente a esta situación.*

Laudio,03.02.2021. Desde que el COVID 19 apareció en nuestra vida, EH Bildu ha priorizado ante todo la salud de la ciudadanía, y en esta ocasión, sin dejar de lado esta prioridad, reivindica la necesidad de disfrutar de la cultura del pueblo. Por ello, pide al equipo de gobierno un esfuerzo por revitalizar la cultura. *"Creemos que el ayuntamiento debería apostar por la cultura. Estamos preocupadas por la situación de los agentes culturales, ya que, desde marzo del año pasado, ha sido uno de los sectores económicamente más desfavorecidos, al tiempo que apreciamos en la ciudadanía la necesidad de disfrutar de actos culturales en nuestro pueblo. Si se garantizan las medidas de seguridad oportunas, sería posible llevar a cabo iniciativas y actuaciones culturales, como se están realizando en otras localidades"*, ha señalado Nagore Gomara.

Al mismo tiempo, la coalición pide al gobierno EAJ-PSE que responda y satisfaga adecuadamente a las necesidades de los agentes y grupos culturales de la localidad. *"Son muchos, en los últimos días, los agentes y grupos culturales que están reclamando la necesidad de un espacio y un lugar para poder llevar a cabo su actividad"*, ha añadido la concejala de EH Bildu. También ha señalado que durante todo este tiempo en el que se está llevando a cabo los trabajos de reforma de la casa de cultura, el equipo de gobierno no ha ofrecido una solución óptima a los grupos locales, denunciando también la falta de planificación de las obras. A falta de dos años para finalizar todas las obras de la Casa de Cultura, y cuando todos los cursos y actividades han sido suspendidos, EH Bildu pide urgentemente al equipo de gobierno que no entorpezca la actividad de estos agentes y grupos locales, y que ofrezca alternativas a todos los que se han quedado sin local debido a las obras.

Finalmente, la coalición muestra su preocupación por la situación de las trabajadoras y trabajadores que se han quedado en paro o en situación precaria como consecuencia de la suspensión de los cursos, y hace un llamamiento al equipo de gobierno EAJ-PSE, para que, garantizando las medidas de seguridad adecuadas y/o utilizando medios telemáticos, por ejemplo, oferte de nuevo, cursos a la ciudadanía.

